

Materialtasun azterketa 102-49

2019ko Jasangarritasun Memoria prestatzeko, aurreko urteko materialtasun azterketa eguneratu dugu. Azterketa horren helburua da zehaztea zeintzuk diren alderdi garrantzitsuak EROSKIren eragin ekonomikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak islatzeko orduan, interes taldeen erabakietan eragiten dute, edo inpaktua sortzen dute ekonomian, ingurumenean edo sozietatean.

Iturri bibliografikoak, batez ere GRIk argitaratutako erreferentziako estandarrak, esaterako GRI estandarrek, edo Governance & Accountability-k eginiko sektoreko gehigarriak, Nazio Batuen Mundu Hitzarmeneko printzipioak eta informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzko 11/2018 Legea.

Merkatutik jasotako informazioa, batez ere sektoreko enpresek eginiko argitalpenak, edo EROSKIren hornidura sareko enpresek eginikoak.

Erakundeari eta bere interes taldeei buruzko barneko eta kanpoko informazioa, hala nola langileekin, kontsumitzaileekin, bazkideekin, hornitzaileekin, hirugarren sektorearekin, administrazio publikoarekin, finantza zerbitzu eta inbertitzaileekin, eta hedabideekin eginiko xede taldeen eta inkestaren emaitzak.

Materialtzat (garrantzitsutzat) jotakoak materialtasun matrizean islatzen direnak dira.

Hala, materialak izan daitezkeen gaiak identifikatzeko, honako hauek hartu dira aintzat:

Jarraian alderdi batzuk lehenetsi dira, eta EROSKIrentzat eta gure interes taldeentzat garrantzitsuenak direnak aukeratu dira. Horretarako, barneazterketabateginda (EROSKIrentzat duen garrantzia), baita kanpoko azterketa bat ere (garrantzia interes taldeentzat), identifikaturiko gaien garrantzi maila ezagutzeko.

Erabilitako kontsulta metodo nagusia online inkesta izan da, bai interes taldeei (kanpoko ikuspegia), bai EROSKIn erabakiek hartzeko erantzukizuna duten pertsonen (barneko ikuspegia). Talde horien barruan daude Zuzendaritza Kontseilua, plantilla, frankiziak, bazkide bezeroak, bazkide Kontsumitzaileak, hirugarren sektorea, hornitzaileak, Administrazio Publikoa, finantza zerbitzuak eta hedabideak.

Azterketaren emaitzak berrikusi eta balioztatu dira, materialtasunak EROSKIren ingurumen arloko jarduna egoki eta modu orekatuan islatzen duela ziurtatzeko, bai eragin positiboena bai negatiboena. Zentzu horretan, halaber, garrantzitsutzat hartu dira honako hauek: "tokiko komunitateak", EROSKIren gizarte ekintza osorik islatzeko; "isurketak", ingurumenean dugun aztarnaren inpaktua dela eta; eta "jarduerak ekonomikoak", kudeaketa eta ekonomikoak ere sartzeko.

Amaitzeko, materialtasun matrizea lortu da, eta bertan identifikatu dira EROSKIren alderdi materialak:



Materialtasun matrizea

Gai materialak 102-47; 102-49

Garrantzia interes taldeentzat	handia	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa Tokiko hornitzaileei erostea Erantzukizuna marketinean eta etiketan Laneko osasuna eta segurtasuna Enplegu egonkorak eta kalitatezkoak 		
	ertaina	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroen kudeaketa Aniztasuna eta aukera berdintasuna, eta diskriminaziorik eza Hornidura katearen jasangarritasuna Produktu seguru eta osasungarriak Ontzien ekodiseinua eta material jasangarriagoen erabilera 		
	txikia	<ul style="list-style-type: none"> Prezio lehiakorak Berrikuntza Gizarte ekintzako ekimenen sustapena* Jarduera ekonomikoa* Hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea Kontsumitzaileen prestakuntza Energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera Karbono aztarna* Elikagaiak alferrik galtzea 		
		txikia	ertaina	handia
Garrantzia EROSKIrentzat				
	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen kudeaketa Konpromisoak, politikak eta kudeaketa arduratsua 	<ul style="list-style-type: none"> Enplegua eta lan harremanak Bezeroak, kontsumitzaileak eta produktuaren erantzukizuna 		
<p>Halaber, * duten gaiak txertatu dira, EROSKIren jardueran duten lotura eta garrantzia direla eta.</p>				

Gai materialen zerrenda eta horien estaldura 102-46; 103-1

Gai materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKIren inplikazioa	Materialtasunaren arrazoia
Jarduera ekonomikoa (GRI 201)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Enpresaren kudeaketa ekonomikoak eragin handia du haren interes taldeetan. Sortutako langile kopuruari eragiten dio, produktu eta zerbitzuen erosketari, merkataritza sareari, enpresa estrategiari, zorraren kudeaketari eta mozkinen banaketari, besteak beste.
Tokiko hornitzaileei erostea (GRI 204)	Erakundetik kanpo	Zuzena	Dugun erosketa bolumenak eta hornitzaile kopuruak balizko eragin nabarmena dakar lan egiten dugun inguruneko tokiko hornitzaileen garapenean.
Enpresa jokabide etikoa eta arduratsua (GRI 205)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzena	Enpresak jokabide etiko eta arduratsua izatea ezinbestekoa da interes taldeentzat; hori dela eta, ustelkeriaren aurkako neurriak hartzen ditugu.
Ontzien ekodiseinua eta material jasangarriagoen erabilera (GRI 301)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Ontzi eta bilgarriak fabrikatzeak, erabiltzeak eta eskaintzeak eragin handia izan dezake ingurumenean. Horregatik, materialen kontsumoa optimizatzea eta jasangarritasun irizpideak integratzea ezinbestekoa da gure bezeroentzat eta, oro har, gizartearentzat.
Karbono aztarna (GRI 305)	Erakundetik kanpo	Zuzeneko eta zeharkakoa	Berotegi efektuko gasek gizakion osasunean eta kliman duten inpaktua da egungo arazo handi eta garrantzitsuenetako bat interes talde desberdinentzat.
Hornidura katearen jasangarritasuna (GRI 308-414)	Erakundetik kanpo	Zuzeneko eta zeharkakoa	Hornitzaileen katea arduraz kudeatzeak, gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta etikoak txertatuta, gure enpresan eta balio kate osoan erantzukizun politikak ezartzen laguntzen du.
Enplegu egonkorak eta kalitatezkoak (GRI 401)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzena	Enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea funtsezkoak dira EROSKI bezalako enpresa batean, zeinetan langile asko kooperatibaren jabe ere badiren, eta zeinetan 30.000 langile zuzen baino gehiago dauden.
Laneko osasuna eta segurtasuna (GRI 403)	Enpresa barruan	Zuzena	Langileak diren gure lehentasunezko interes taldeetako bat; horregatik, laneko arriskuak prebenitzea, eta osasuna eta segurtasuna sustatzea, funtsezkoa da enpresan.
Aniztasuna eta aukera berdintasuna, eta diskriminaziorik eza (GRI 405-406)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzena	Diskriminaziorik ez izateko politikak edukitzea eta aniztasunean, kultur aniztasunean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituriko lan ingurune inklusiboa izatea gure enpresaren konpromisoetako bat da.
Gizarte ekintzako ekimeneen sustapena (GRI 413)	Erakundetik kanpo	Zuzena	Kooperatibaren oinarriko printzipioetako bat da gizartean aktiboki parte hartzea, lan egiten dugun komunitateen garapen ekonomikoa eta gizarte garapena bultzatuko duten gizarte ekintzako programen bidez.
Produktu osasungarriagoak (GRI 416)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Elikagaiak banatzen dituen enpresa gisa, gure hornitzaileekin batera produktu guztien kalitatea eta segurtasuna bermatzea oso garrantzitsua da guretzat. Produktu osasuntsuagoak eta dieta bereziei egokituak edukitzea oinarrikoa da gure bezeroen premiei erantzuteko.
Erantzukizuna marketinean eta etiketetan (GRI 417)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzeneko eta zeharkakoa	Marketin jakinarazpenetan eta etiketatzean irizpide etikoak eta erantzukizunekoak aplikatzeak, arreta berezia eskaintzeak eta marketin indibidualizatuak garrantzi handia dute gure bezeroentzat.